

Opari erromantikoak

Bikoteetan egiten diren opariei buruz da sekuentzia hau. Opari horiek aldatzen joaten dira denborarekin: hasieran erromantikoak izaten dira; geroago praktikoak; eta azkenik, askotan, oparirik ez da egiten, besteak denetik daukala iruditzen zaigu. Horrela pentsatzen du, behintzat, **Karmele Jaio** idazleak.

Idazle horrek **Noticias de Gipuzkoa egunkarian** idatzitako artikuluan oinarrituta, pare bat ariketa proposatzen dizkizugu gai hori lantzeko.



noticias de Gipuzkoa

Oparirik erromantikoenak

Urtebetetzeetan egiten bikotean egiten diren opariei buruzko artikulua idatzi du Karmele Jaio idazleak. Bertan zerrendatu egiten ditu opari horiek erromantikoenetik hasi eta hain erromantikoak ez direnera.

Artikulua irakurtzen hasi aurretik, zeuk ere ordenatuko al dituzu idazleak aipatzen dituen opari hauek?:

- kontzertu baterako sarrera
- liburua edo CD/DVDA
- kolonia
- alkandora
- muxua bakarrik
- pijama
- ileak kentzeko aparatu elektrikoa.

Irakurri artikulua eta esan nola ordenatu dituen idazleak opari hauek, erromantikoenetik hasita.

Opariak

Gizon bat entzun dut kexaka; urteak dira emazteak ez diola oparirik egiten urtebetetzean, hala esan dio telefonoaren bestaldean zuen norbaiti. Eta pentsatu dut badagoela hori baino zerbait larriagoa. Askotan gertatzen da. Bikote baten hasierako urteetan, opari ez materialak izaten dira nagusi, une erromantikoak oparitzen dira: elkarrekin bidaia bat Erromara, luxuzko jatetxe batean afaria, kontzertu berezi baterako sarrerak...

Gutxika, opari ez-material horiek gorpuzten hasten dira, material bihurtzen. Hasieran liburu edo disko bat izaten da (hor oraindik uneak oparitzen dira, beraz ez dira guztiz materialak), gero kolonia bat (materiala, baina aldi berean etereo)... Hurrengo fasean materialago den zerbait, alkandora bat, kasu. Eta horren ondoren, oparirik gabeko urteak datoz. Bikoteak ez du zure urtebetetzea ahaztuko eta muxu berezi bat emango dizu goizean, baina ez du burua hautsiko opari original baten bila, besteak beste, "denetarik daukazulako."

Beno, ba, kexaka ari zen gizonari esango nioke badagoela bikotearen oparirik gabeko urtebetetzea baino egoera larriagorik. Eta horren ondoren datorren fasea da. Benetan kezkatzeko fasea den honetan, bikoteak opari super-erabilgarri bat egingo dizu: iratzargailu bat, gimnasia egiteko aparatu bat (horrek bai egiten duela min), pijama bat... Kontuz, alerta gorria! Fase honetan bazaude, jakin ezazu zure bikotearen unibertso erromantikotik kanpo zaudela jada, eta haren familiaren unibertsoan sartu zarela, bere neba-arrebak, koinatuak, aitagarrebak eta seme-alaben maila berean.

Egoera larrian zaude, baina oraindik berreskuratu dezakezu zure harremanaren erromantizismoa. Prestatu ezazu, ahalik eta azkarrena, opari ahalik eta immaterial eta sinbolikoena, (esate baterako, margotu iezaiozu marrubizko marmeladaz bihotz bat goizeko ogi xigortuaren gainean). Antzeko zerbait egiten ez baduzu, arrisku handia daukazu egunen batean belarri eta sudurretako ileak mozteko aparatu elektriko horietako bat jasotzeko opari. Eta orduan bai, ez dagoela atzera bueltarik.

(Noticias de Gipuzkoa. Boteprontoan, 2011-10-07)



- muxua bakarrik
- ileak kentzeko aparatu
- elektrikoa
- liburua edo CD/DVDa
- pijama
- kolonia
- alkandora
- kontzertu baterako sarrera